



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Prensa oharra

Gernikako Batzarretxeak eutsi egin deutso turistak erakarteari, abuztuan 26.000 bisitatik gora izan ditueta

- **Egunero ia mila bisitaritik gora izan ditu Bizkaiko legebatzarreko egoitzak, Bizkaiko turismoko erakargarririk nagusiena dala erakutsiz.**

Bilbon, 2012ko irailaren 10ean

Abuztuan izandako bisitarien kopuruak berretsi egin dau Gernikako Batzarretxeak bisitariak erakarteko dauen gaitasuna. 2011. urtean jazo zan legez, aurtengo abuztuan be Bizkaiko Legebatzarrak 26.000 mila bisitarien mugea gainditu dau gehientzat oporhile dan horretan; izan be 26.264 bisitarira heldu da aurtengoan. Euskaldunen ikur nagusia dan Gernikako Aretxak bataz beste ia mila bisitari izan ditu egunero, ia aurreko urteko kopuru berean eta urreko urteetan izaten ebazan bisitariak — 20.000 inguru — askogaitik gaindituz. Bisitarien %85a Euskal Herritik kanpokoak izan dira.

Gernikako Batzarretxea eta Gernikako Aretxa ezinbesteko geldiune bihurtu dira Bizkaira bisitan datozenentzat. Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren gunean kokaturik dagoan Gernikako uribildua beti izan da erakargunea, ikur sinboliko handia da eta. Udan batez be, Batzarretxea eta haren inguruak beste autonomi erkidego batzuetatik eta beste herrialde batzuetatik etorritako bisitariz beterik egoten dira. Udaldiko turismo hori “gehien bat familiena” izaten dala dinoe hamarkada bi baino gehiago bisitariei harrerea egiten diharduen Ana Alberdi eta Ainoa Erauskin gidariek.

Azken urte bietan izandako gorakadea gora-behera, bisitarien jatorria beste uda batzuetakoen antzerakoa izan da. Beste autonomi erkidego batzuetatik etorritakoen artean (guztirakoaren erdia baino gehiago dira horreek) kataluniarrak dira gehien. Gernikako Batzarretxea bisitatu ebenenen ia laurena kataluniarrak ziran. Bisitarien beste %25 valentziarrek, andaluziarrek edo madrildarrek osturikoa da. Espainiako bisaia-agentzien bitartez etorritako taldeen presentzia “oso nabarmena” izan dala adierazo dabe. Bultzada horri esker, Batzarretxeko bisitaldien kopuruak goia jo dau egunen batzuetan eta 1.400 bisitaritik gora heldu da. Abuzturen 8an, zapatuan, Bizkaiko legebatzarrak 1.584 bisitarirainoko kopuru itzela izan eban.

Europatik datozen turisten jatorriari jagokonean, beste urte batzuetako joera bera izan da, Euskal Herriko intereseko beste toki batzuetan jazoten dan moduan. Frantziarrek osatzen dabe gehiengoa, eta horreen ostean hurrenez hurren datoz italiarrak, ingelesak



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

eta alemaniarrek. Gure kontinentetik kanpokoei jagokenean, bost herrialde gailentzen dira estadistiketan: AEB, Israel, Argentina, Venezuela eta Japonia. Bostean artean zazpirehun lagunetik gora etorri dira.

Gernikara etorteko arrazoiak ez dira aldatzen. Anak eta Ainoak dinoen lez “udaldian, milaka lagun etorten dira Gernikako Batzarretxeari darion historia eta tradizioaren deiak erakarrita”. “Bakearen uribildua” mundu osoan ospetsu egin da faxistek 1937. urtean egindako bonbaketeagaitik (aurton hainbat oroitzarre egin dira haren 75. urteurrena dala-ta) eta Picassoren koadruagaitik. Gernika, daukan esangura historikoagaitik, benetako iman erakargarria bihurtu da Euskadira jatorkuzan turistentzat zein munduan zehar barreiatu egon eta gero, dana dalakoagaitik, arbasoen jatorrizko herrira itzultzen diran euskaldunentzat”. Gernikako Aretxak euskaldunentzat dauen esangura sinboliko handiak inguruaren erakargarritasuna be handitu egiten dau.

Bisitariak harrituta

Anak eta Ainoak adierazoten dabenaren arabera, harridurea eragiten dauen lehenengo gauzea da hara “sartzeko erraztasuna”, beste leku batzuetan turistak ohituta dagozalako danagaitik ordaintzen eta burokraziaren oztopoak-eta izaten; Batzarretxera baina, doan eta erraz-erraz sartu leiteke. Beste batzuk hunkituta geratzen dira “Batzar Aretolari darion gorentasunagaz edo leiar ospetsuaren luze-zabalerearen neurriakaz”. Umeak, barriz, ume leku guztietan; zugatza handiagoa izatea itxaroten eben, eurentzat “garrantzia eta neurria” alkarrenak diralako. Bardin da, ze handi zein txiki, danak konturatzen dira foru-uribilduko tontortxu horretan bat egiten dabela “sinbologiak eta historiak”.

Danak baina ez datoz Gernikako Batzarretxea zer dan jakitun. Askok uste dabe “museoa halako zerbait izango dala, eta harritu egiten dira Bizkaiko legebatarra dala jakitean”. Bete batzuk uste dabe Euskadiko Legebiltzarra dala, behar bada Lehendakariaren zina bertan egiteak nahasturik. Badagoz be Pablo Picassoren “Guernica” koadrua bertan topauko dabela uste dabenak, atzerritarrek gehien bat. Holangoak gora-behera, bisitarien harrerea egiteko gidari arduradunek azpimarratu egiten dabe jente asko dagoala Batzar Nagusiak ezagutu barik be “asko dakienak gure erakunde, historia eta hizkuntzari buruz”. Turistarik informatuenen artean kataluniarrak eta galiziarrek dagozala dinoe gidariek.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
B I Z K A I A

Nota de prensa

La Casa de Juntas de Gernika mantiene el tirón turístico con más de 26.000 visitas en agosto

- **Las casi mil visitas diarias confirman que la sede del parlamento vizcaíno es uno de los principales reclamos de Bizkaia.**

Bilbao, a 10 de septiembre de 2012.

Las cifras de visitantes del pasado mes de agosto han vuelto a constatar el poder de atracción que tiene la Casa de Juntas de Gernika. Como ya ocurriera en 2011, el Parlamento de Bizkaia ha sobrepasado la barrera de las 26.000 visitas durante el mes vacacional por excelencia, situándose el registro definitivo en 26.264. El lugar donde descansa el símbolo más universal de los vascos, el Árbol de Gernika, ha recibido de media casi mil visitas diarias, prácticamente el mismo registro que el año pasado y muy por encima de las cifras obtenidas en años anteriores cuando se rozaban las 20.000 personas. El 85% de las personas provino de fuera de Euskal Herria.

La Casa de Juntas y el Árbol de Gernika se han convertido en una parada obligada para muchas personas que visitan Bizkaia. Localizado en pleno corazón de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai, la villa foral ha representado siempre un imán por su elevada carga simbólica. Especialmente durante los meses estivales, la Casa de Juntas y sus alrededores se llenan de visitantes venidos de otras comunidades autónomas y países europeos, un turismo que durante la época estival destaca por ser “ eminentemente familiar ”, señalan Ana Alberdi y Ainoa Erauskin, personas que llevan más de dos décadas recibiendo a los visitantes en la sede parlamentaria vizcaína.

Pese al crecimiento experimentado en los dos últimos años, la procedencia de quienes se acercan a Gernika es muy parecido al de otros veranos. Entre los visitantes venidos de otras comunidades autónomas (representan más de la mitad del total) los catalanes son mayoría. Casi una de cada cuatro personas que visitó la Casa de Juntas vino desde Catalunya. Otro 25% de las visitas lo conforman un grupo formado por valencianos, andaluces o madrileños. Sin duda, la presencia de grupos venidos a través de agencias de viaje nacionales ha sido “ muy notoria ” destacan. Gracias a este impulso, la Casa de Juntas ha tenido “ picos ” por encima de los 1.400 visitas en un día. El sábado, 8 de agosto, el parlamento vizcaíno acogió a 1.584 personas, lo que representó el tope diario.

En cuanto al origen del turista europeo, este colectivo sigue también el mismo patrón de otros años y de otros lugares de interés del País Vasco. Destacan especialmente los franceses, y por detrás de éstos se sitúan, por este orden, italianos, ingleses y alemanes. Y fuera de nuestro continente, hay cinco países que sobresalen en las estadísticas:



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

EEUU, Israel, Argentina, Japón y Venezuela. Entre los cinco sumaron más de 700 personas.

La razón para acudir a Gernika no cambia. Durante estos meses de verano, miles de personas llegan “atraídos principalmente por este cariz histórico y de tradición que brota de la Casa de Juntas y de Gernika” explican Ana y Ainoa. La "Ciudad de la Paz" se ha hecho famosa en todo el mundo por el bombardeo fascista de 1937 (este año han sido numerosos los actos organizados por el 75 aniversario) y por el cuadro de Picasso. Gernika se ha convertido por su carga histórica en un “verdadero imán, tanto para los turistas que se acercan a Euskadi como para los vascos diseminados por el mundo que retornan a su tierra por diferentes motivos”. El Árbol de Gernika, por la elevada carga simbólica que tiene para los vascos, añade aún mayor atractivo.

Visitantes sorprendidos

Lo primero que sorprende es la “facilidad para acceder al lugar”, recuerdan Ana y Ainoa. Acostumbrados a pagar por todo, muchos turistas agradecen que la entrada sea gratuita y tan fácil, alejada de la burocracia de otros lugares emblemáticos. Otros se quedan impresionados por la “solemnidad que desprende el salón de plenos o por las dimensiones de la famosa vidriera”. El contrapunto lo ponen los niños que esperan encontrarse un árbol más grande, ya que relacionan “importancia con tamaño”. Da igual. Ya sean grandes o pequeños, todos reconocen que en esta atalaya de la villa foral, se aúna “simbología e historia”.

No todos vienen con la lección aprendida sobre lo que es la Casa de Juntas de Gernika. Muchos piensan que es una “especie de museo y se sorprenden cuando se les explica que es la sede oficial del parlamento de Bizkaia”. Otros piensan que es la sede del Parlamento Vasco, quizá confundidos por celebrarse aquí el juramento del Lehendakari. Y también están aquellos que esperan encontrar el cuadro “Guernica” de Pablo Picasso, la mayoría extranjeros. Aún así, las responsables de atender a los visitantes, destacan que hay un colectivo que demuestra un conocimiento “muy superior respecto a nuestras instituciones, historia o lengua”. Entre estos turistas “más sensibilizados” reconocen a catalanes y gallegos. Sorprende también el “alto grado de conocimiento” de los turistas extranjeros.